




# BIRBEIRATU

Proiektu honetan **Birbeiratu** enpresa aurkezten dizuegu. Hau, birziklatutako beirazko botilak erabilia bitxiak edo apaingarriak egiten dituen enpresa da.

Hala ere, gure enpresaren berezitasuna, bezeroek ekartzen dituzten botilak erabiltzen ditugula da gure produktuak egiteko orduan. Ingurumena zaintzea da gure helburu nagusia, eta horretarako gizartea gurekin parte hartzea sustatu nahi dugu, horregatik, gure hornitzaileak bezeroak berak dira.



Bezeroek beira birziklatzeagatik gure dendako produktuak erosteko deskontuak emango dizkiegu, modu honetan haien konfiantza bereganatuz. Baita ere eskatu dezakete ekartzen duten beira nahi duten diseinu bat bihurtzea, haien produktuak pertsonalizatuz.

Salmentari dagokionez, denda fisiko bat izango dugu Bilbon, Alde Zaharrean eta online denda bat.

Gure helburua ingurumena errespetatzea denez, gure irabazien %10a Fundación Biodiversidad deitutako fundazio batera joango da, ekosistema babesteaz eta espezieak mantentzeaz arduratzen dena.



Fundación Biodiversidad